

## Salaketen buzoia - EU Next Generation Funtsak

Ordiziako Udalari Europar Batasuneko funtsekin (EU Next Generation funtsak) finantzatutako proiektu edo eragiketekin lotutako iruzur edo irregulartasun izan daitezkeen gertaerak jakinarazi nahi badizkiozu, horretarako dagoen kanal hau erabil dezakezu:

**Ordiziako Udalari iruzurrak edo irregulartasunak jakinarazteko kanala**

[iruzursalaketak@ordizia.eus](mailto:iruzursalaketak@ordizia.eus)

### Datu pertsonalei buruzko informazioa:

Ordiziako Udalaren aurrean iruzurrak eta irregulartasunak jakinarazteko kanalaren bidez emandako datu pertsonalak Ordiziako Udaleko Iruzuraren aurkako Batzordeak tratatuko ditu, Europar Batasuneko finantza-interesei egindako iruzur-kasuak eta irregulartasunak ikertzeko, eta, hala badagokio, kasu bakoitzean bidezkoak diren erantzukizunak eskatzeko lege ezarritako prozedurak izapidetzeko. Datu pertsonal horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, salbu eta organo jurisdikzionalak edo Fiskaltzarenak direnean eta prozedura judicialaren araudiak beste zerbait eskatzen duenean. Tratamenduaren arduradunaren aurrean baliatu ahal izango ditu bere eskubideak.

### Igorritako informazioaren analisisa:

- Ordiziako Udaleko Iruzuraren aurkako Batzordeak aztertu egingo du jasotako informazioa, haren tratamendua zein izan behar den zehazteko, eta beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen eta jarduerak egingo ditu.
- Salaketa oro kontuan hartuko da, eta informazioa eman duen pertsonari egindako gestioen emaitza komunikatuko zaio.
- Hala ere, jasotako informazioa ez da bideratuko, baldin eta informazio hori argi eta garbi funtsik gabea bada, edo bidalitako informazioaren urritasunak, gertaeren deskribapen orokorregiak eta zehaztugabeak edo emandako froga-elementurik ezak ez badiote uzten Ordiziako Udaleko Iruzuraren aurkako Batzordeari jasotako informazioaren arrazoizko egiaztapena egiten eta komunikatutako gertaerei eman beharreko tratamendua zehazten.

## **Konfidentzialtasun bermea:**

### **Iruzuraren kontrako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionala (SNCA)**

Iruzuraren kontrako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalerako Zerbitzua (SNCA) Europar Batasunaren finantza-interesak iruzurretik babesteko ekintzak koordinatzeaz arduratzen den organoa da, Iruzuraren aurkako Europako Bulegoarekin (OLAF) lankidetzan.

SNCAri Europar Batasuneko funtsekin finantzaturako proiektu edo eragiketekin lotutako iruzur edo irregulartasun izan daitezkeen gertaerak jakinarazi nahi badizkiozu, horretarako Zerbitzuak duen kanal hau erabil dezakezu:

<https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Paginas/ComunicacionSNCA.aspx>